



JARDUEREN TXOSTENA 2011

AURKIBIDEA

- 1) ATARIKOA
- 2) EGINDAKO JARDUERA
 - a) Espedienteak
 - (1) Izapidetutakoa
 - (2) Ebatzitakoak
 - (3) Ebazteko zain
 - b) Berraztertze errekurtsoak
 - c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoak
 - d) Bilerak
 - e) Besterik: Arartekoa



1) ATARIKOA

Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legeak (1998ko ekainaren 25eko EHAA, 118 zk.) XII. tituluko I. kapituluan, eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak (2005ko azaroaren 15eko EHAA, 217 zk.), diotenaren arabera, batzorde hori da **Euskal Autonomia Erkidegoan kirol-justiziaren arloan administrazio-organo nagusia.**

Kirol Justiziako Euskal Batzordea (aurrerantzean KJEB) organikoki Kultura Sailari atxikia dago, baina, hala ere, **erabat independentea** da sailarekiko eta ez dago hierarkikoki Euskal Autonomia Erkidegoaren Administraziooko inongo organoren mendean.

Batzordeak **azken administrazio-azuzaldian erabakiak hartzen ditu bere eskumeneko kirol gaiei buruz.** 14/1998 Legearen 138. artikulua dioenez, honako hauek dira KJEBren eskumenak:

- a) Kirol-diziplinako ahalmena duten kirol-organo titularren erabakien aurka jarritako errekursoak aztertzea eta ebaztea.
- b) Kirol-federazioetako hauteskunde-batzarren erabakien aurka jarritako errekursoak aztertzea eta ebaztea.
- c) Lehiaketa ofizialak bideratu, kalifikatu eta baimentzeari eta lizentziak izapidetu eta emateari dagozkien federazio-erabakien aurka jarritako errekurso guztiak aztertzea eta ebaztea.
- d) Administrazio-eginkizunak betetzean federazioen artean sor litezkeen auziak aztertzea eta ebaztea.
- e) Batzordeak, ofizioz edo Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzaren eskariz, gorago aipaturako gaien artetik aztertu beharreko ikusten dituenak aztertzea eta ebaztea.

KJEBren **osaera** eta bertako kideen **agintaldiaren iraupena** ere aipaturiko 14/1998 Legean eta 310/2005 Dekretuan araututa daude: sei kide titular



ditu (Zuzenbidean lizentziadunak eta kirol-arloko lege-gaietan esperientzia handikoak), eta agintaldiaren iraupena lau urte dira.


Ikusirik Kulturako sailburuaren 2007ko urtarrilaren 16ko Aginduaren bitartez (2007ko otsailaren 14ko EHAA, 32 zk.) xedatutako KJEBko kideen agintaldia amaitzear zegoela, organoa berritzeari ekin zitzaion, eta horretarako Kulturako sailburuaren 2011ko urtarrilaren 18ko Agindua eman zen (2011ko otsailaren 9ko EHAA, 27 zk.). Izendatutako kide titular berriak hauek dira: Mila Agirre, Jose Luis Aguirre, Mirari Erdaide, José Luis Iparragirre, Jose Ramon Mejias eta Agurtzane Zangitu. Eta ordezkioak: David Salinas-Armendariz eta Pilar Martínez. Beraz, emakumeen eta gizonen arteko orekari eutsi zaio KJEBren osieran, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak exijitzen duena betez.

Barne funtzionamenduari dagokionez, 2007ko otsailaren 16ko bileran karguen urteko txandakatzeari buruz erabakitakoari eutsiz, 2011ko urtarrilaren 28an presidente kargua utzi zuen Mila Agirrek, eta Mirari Erdaidek hartu; halaber, presidenteorde kargua utzi zuen Mirari Erdaidek, eta Jose Luis Iparragirrek hartu zuen.


2) EGINDAKO JARDUERA

a) Espedienteak

2011n zehar 34 espediente sartu dira Batzordean. Hiruhilekoen arabera aztertuz gero, azkena izan da emankorra (13 errekurtsio), eta hilen arabera abendua (8).



Modalitateen arabera, futbola nabarmentzen da (14 espediente), eta ondotik eskubaloia (5). Azpimarratzekoa da futboleko 14 espediente horietatik 13 (% 86) eskola-lehiaketetakoak izatea, saskibaloiko hiru espedienteak bezalaxe.






Aurkezturiko espedienteak sailkatu beharko bagenu, honako multzo hauek egingo genituzke:

1. Federazio-lehiaketetako gorabeherak: 12
2. Eskola-lehiaketetako gorabeherak: 16
3. Dopina: 1
4. Hauteskundeak: 3
5. Federazioen funtzioekin loturiko gatazkak: 2

Errekurtso horietatik hamaika oraindik ebatzteke daude: 2012ko lehenengo bileretan ebatziko dira.

Ilido horretatik, 2011n ebatzi dira 2010ean izapidetutako espediente batzuk, zehazki zazpi.

Guztira, aurten 30 espediente ebatzi dira, berraztertzeko errekurtsuak kontuan hartu gabe. Ebazpenak nolakoak izan diren azaltzen du ondoko koadroak:





Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak ezartzen duenez, sexu-aldagaia sistematikoki jaso behar da estatistika eta datu-bilketa guztietan. Bada, ikuspegi horretatik aztertzen baditugu ebatzitako espedienteak, ikusiko dugu zein diren KJEBk ebatzitako 30 errekurtsuak aurkeztu dituztenak:

- * Pertsona juridikoak: 26 (% 86,67)
- * Pertsona fisikoak: 4 (% 13,33)
 - Gizonak: 4
 - Emakumeak: 0

b) Berraztertze errekurtsuak

Bi berraztertze errekurtsu ezetsi dira. Bata 2010eko espediente bati dagokiona, eta bestea 2011ko bati, eta biek berresten dute espedienteen inguruan Batzordeak aurretik harturiko erabakiak.

c) Administrazioarekiko auzi-errekurtsuak

Batzordearen Idazkaritzak dakiela, ez da aurkeztu administrazioarekiko auzi-errekurtsorik 2011n KJEBk harturiko erabakien ondorioz.

Aurreko urteetan jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsuen gaineko epai batzuk jaso dira:

- 168/2011 epaia, 2011-06-16koa, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegiarena. Errekurritutako egintza: KJEBren 2010-03-23ko erabakia, Euskadiko Eskubaloi Federazioko Apelazio Batzordearen 15/2009-2010 epaitzaren aurka (hilabeteko etenaldiaren isuna) errekurtsu-egileak jarritako errekurtsua ezesten duena. Epaitza: administrazioarekiko auzi-errekurtsua ezestea eta errekurritutako ebazpena zuzenbidearen arabera dela deklaratzeko.



- 177/2011 epaia, 2011-07-26koa, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako 1. Epaitegiarena. Errekurritutako egintza: KJEBren 2010-04-19ko ebazpena, Euskadiko Zaldiketa Federazioak kirol-lizentzia etenaz jarritako isunaren aurka aurkeztutako errekurtsoa ezesten duena. Epaitza: osorik baiestea aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa; KJEBren 3-2010 espedientean jarritako isuna ez dela zuzenbidearen araberakoa deklaratzeko eta hura baliogabetzea, eta deklaratzeko ez dela bidezkoa hura jartzea.

d) Bilerak

Batzordea hamabi aldiz elkartu da 2011n. Ondoko taulan ikus daiteke bilerok zein egunetan egin diren eta horietan zein espediente ebatzi diren:

BILERA	ESPEDIENTEAK
28/1/11	20 (berrazter. errekur.), 23, 24, 26
25/2/11	25 eta 27 (2010), 1 (2011)
4/4/11	28 eta 29 (2010), 2, 3, 5, 7 (2011)
7/4/11	8, 9, 10, 12, 13, 14
16/5/11	4 eta 11
23/5/11	6 eta azpimarratzea zein garrantzitsua den Kirol Zuzendaritzak neurriren bat hartzea kirol-federazioek beren araudiak inskriba ditzaten Kirol Erakundeen Erregistroan
17/6/11	25/10 espedientea dela-eta Arartekoak egindako idazkiari erantzuten dion txostena
1/7/11	5 (berrazter. errekur.), 17 eta 18
15/7/11	15, 19 eta 21
28/7/11	16 eta Arartekoaren gomendioa
8/9/11	20
16/12/11	22 eta 23



e) Besterik: Arartekoa

2011ko ekainaren 1ean, 25/10 espedientea dela-eta (gaia: isuna, Herri Kirolak) 2011ko otsailaren 25ean KJEBk hartutako erabakiaren gainean Arartekoak bideratzen ari den kexa-espedienteari buruz erakunde horrek egindako informazio-eskaeraren ofizioa bidali zion Arartekoak Kultura Sailari. Eskaera horri erantzuteko txostena onartu zuen KJEBk, 2011ko ekainaren 17an egindako bileran.

Txosteneko gaiari dagokionez, Arartekoak 2011ko uztailaren 21eko Ebazpena eman zuen, zeinean gomendioa egiten baitzion Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari indarrrik gabe uzteko zaldi-proba lehiaketa batzuetan parte hartzaile bati jarritako isuna, hartara ukaturiko testigantza proba egin ahal izateko eta beste ebazpen berri bat eman ahal izateko.

Kontuan hartuta Arartekoak hamabost eguneko epea eman zuela ebazpen horretako gomendioen inguruan erantzun espresu bat emateko, KJEBk, 2011ko uztailaren 28an egindako bileran, erabaki zuen erantzutea berretsi egiten zuela 2011ko otsailaren 25eko erabakia, sinetsita baitzegoen zuzenbidearen arabera zela, horren arrazoiak 2011ko ekainaren 17ko txostenean adierazitakoak zirela, eta haiei lotzen zela.